



## Etixerat denuncia que mediante mecanismos represivos tratan de destruir el colectivo de pres@s

---

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 20/11/2009

[Cast/Eusk] Etixerat quiere denunciar los acontecimientos que están sucediendo en las prisiones españolas durante las últimas semanas.

[Cast] Etixerat quiere denunciar con firmeza y contundencia los acontecimientos que están sucediendo en las prisiones españolas durante las últimas semanas. Los presos y presas políticas vascas están obligados a vivir en las condiciones de vida más duras. Así, la última piedra ese duro camino ha sido el reciente ataque que estamos sufriendo los familiares, amigos y amigas. Nos quieren humillar y vejar antes de entrar en los vis a vis. La sociedad vasca debe de saber que ya existen mecanismos tecnológicos lo suficientemente efectivos, como el arco o la raqueta, para garantizar la seguridad sin tener que ser manualmente tocados, palpados, cacheados y, por consiguiente, humillados. Buscan dificultar aún más la situación de los presos y presas políticas vascas, aislándolos de su entorno social y afectivo. El objetivo del Estado español es destruir a nuestros familiares, amigos y amigas encarceladas como personas y también como sujetos políticos, para ello tratan de romper cualquier tipo de comunicación con su entorno social y afectivo. Para Etixerat, este nuevo ataque se engloba dentro de una estrategia global de represión contra los presos y presas políticas vascas. Comenzamos el año con la propaganda mediática en torno a presuntos arrepentimientos puesta en marcha por los aparatos que dirige Rubalcaba, la campaña de primavera verano estuvo marcada por la obsesiva y violenta campaña contra las fotos protagonizada por Ares, después amenazaron con ilegalizar a Etixerat y ahora pretenden humillar a familiares y amigos antes de entrar en un vis a vis. Son mecanismos de represión para intentar destruir al Colectivo de Presos y Presas Políticas Vascas. Una vez más, están equivocados. Tenemos claro que va a ser una batalla a ganar con inteligencia, paciencia y dignidad. Esas van a ser los tres ejes en los que nos vamos a apoyar. Son muchos ya los años en los que vienen poniéndonos piedras en el camino, pero siempre sabemos superarlas. La solidaridad no conoce límites. Queremos a nuestros familiares, amigos y amigas y ese cariño es muchísimo más fuerte y resistente que cualquier tipo de medida represiva. Es hora de dar forma a una ola solidaria que inunde todos los rincones de Euskal Herria. A través de la interpelación, vamos a tocar todas las puertas posibles en nuestro país y también lejos de las fronteras vascas. Vamos a agitar todas las oficinas, estamentos y calles que sean necesarias para que de una vez por todas se respeten los derechos de los presos y presas políticas vascas. Euskal presoak etxera!!! SUCESOS DEL PASADO FIN DE SEMANA: - Vis a vis perdidos: - En Curtis se perdieron 7 vis a vis. - En Herrera de la Mancha se perdieron 6 vis a vis. - En Jaén se perdieron 6 vis a vis. A la salida de la prisión, un carcelero dijo lo siguiente a los familiares, amigos y amigas: "Ojalá se estampen todos en la carretera. - En Almería se perdieron 6 vis a vis. Como consecuencia de ello, los presos políticos vascos allí encerrados han comenzado un chapeo del 16 al 20 de noviembre y que tendrá continuidad del 23 al 27 del mismo mes. En Aranjuez también han emprendido otro chapeo mientras no se solucione la situación. - En Ocaña II también se perdieron 2 vis a vis. - En Huelva se perdieron 2 vis a vis. Camino de dicha prisión,. Los familiares de Anabel Egues sufrieron un brutal control antidroga de la Guardia Civil en Salamanca. A las 03:00 de la mañana, cerca

de una docena de agentes rodearon el coche, introdujeron a los perros dentro del vehículo y sometieron a los familiares de la presa a un violento cacheo integral. - En Brieva también se perdieron 2 vis a vis. - En Teruel, Daroca, Aranjueze, Valencia y Granada también hubo vis a vis-es que no se pudieron realizar.

---

[Eusk] Etxerat Elkarteak gogor salatu nahi du azken asteetan Espainiar Estatuko hainbat espetxetan gertatzen ari dena. Euskal preso politikoak bizi baldintza gogorrenetara bizitzera behartzen dituzte. Estrategia horren baitako azken katebegia, senide eta lagunen kontrako eraso bat da. Aurrez aurrekoetan sartu baino lehen, katxeatu, palpatu eta umiliatu nahi dituzte. Euskal jendarteak jakin behar du, funtzionarioek eta espetxeek bitarteak dituztela hori egiteko eskuekin gu ukitu gabe eta gure buruak umiliatzen saiatu gabe. Horren eredu dira, segurtasun arku edo raketa. Baina, euskal preso politikoen egoera are gehiago zaildu asmoz eta euren inguru sozial eta afektibotik aldentzeko asmoz, Espainiar Estatuak beste urrats bat eman du. Euren helburua argi da, euskal preso politikoak pertsona eta subjektu politiko gisara suntsitzea da. Horretarako, komunikazio forma oro eten nahi du.

Etixeratentzat, eraso berri hau dinamika errepresibo oso baten baitan kokatzen da. Urtea, ustezko "damuketa" politikaren indartzea eta propaganda mediatikoarekin hasi zuen Rubalcabak gidatzen duen aparato errepresiboak, ondoren Aresek argazkien aurka abiatu zuen gurutzada tamalgarri eta bortitza etorri zen, bitartean gure elkarteak lege kanpo uztearekin mehatxatu dute eta azkenik, aurrez aurrekoetan sartzeko senide eta lagunak umiliatu nahi izatea. Euskal Preso Politikoen Kolektiboa suntsitzeko mekanismoak dira, senide eta lagunen artean batasuna hausteko mekanismoak. Baina, argi eta garbi esan nahi diegu berriz ere kale egingo dutela. Borroka hau inteligentziaz, pazientziaz eta duintasunez aurrera eramango dugula. Badira urteak non bidean hamaika traba jartzen dizkiguten, baina behin eta berriz gainditzen ditugu. Elkartasunak mugak eta etenik ez duelako. Gure senide eta lagunak maite ditugulako eta maitasunak errepresioak berak baino indar gehiago duelako. Elkartasun uholdea antolatu behar da euskal jendartean indarrean dagoen espetxe politika kriminalari amaiera emateko. Guztion arteko elkarlana ezinbestekoa izango da. Interpelazioa Euskal Herrian eta nazioartean. Ukitu beharreko ate guztiak ukituko ditugu gure senide eta lagun presoek eskubideak errespetatuak izan daitezen. Kanean eta bulegoak astinduko ditugu konpromiso bila. Euskal presoak etxera! ASTEBURU HONETAKO GERTAKARIAK: - Galdutako Aurrez aurrekoak: - Curtisen 7 aurrezko aurreko galdu ziren. - Herrera de la Manchan 6 aurrez aurreko galdu ziren. - Jaén-en 6 aurrez aurreko galdu ziren eta senide eta lagunak espetxetik ateratzen ari zirenean funtzionario batek "ojalá se estampen todos en la carretera" esan zien. - Almería 6 aurrez aurreko galdu ziren. Hori dela-eta, bertako presoek itxialdi bat burutzea erabaki dute azaroaren 16tik 20ra eta 23tik 27ra. Aranjuezeko espetxean ere, egoera konpondu bitartean, itxialdiak egingo dituzte. - Ocaña II-n bi aurrez aurreko galdu ziren. - Huelvan 2 aurrez aurrezko galdu ziren. Huelvako espetxean preso dagoen Anabel Eguesen senideei sekulako kontrola egin zieten Salamancan. Ustez drogaren aurkako kontrol bat izanik, Guardia Zibilak lau hankadun txakurrak sartu zituen kotxe barruan eta katxeo bortitz bat pairatzera behartu zituzten goizeko 03:00tan. - Brievan bi aurrez aurreko galdu ziren. - Teruel, Daroca, Aranjuezen, Valentzia eta Granadan ere aurrez aurrekoak bertan behera geratu ziren.